

JUNIOR MAILAKO NAFARROAKO XAKE TXAPELKETA.

18 urtez azpiko jokalarientzako Txapelketa hau 2010.go apirilaren 1etik 4ra jokatu zen, Burlatako Mikel Gurea Xake Taldearen lokalean. Lau jardunaldiko sistema suitzarra erabili zen. Jokalari bakoitzak 90 minutu zituen partida osatzeko, gehi 30 segundo jokaldiko.

laz 5 jokalarik parte hartu zuten. Aurten 4 gehiago izan dira.

AZKENEKO SAILKAPENA.

1) Luis David Jimenez Almeida – 4 puntu.

- 2) Pablo Urriza Iricibar – 3 puntu.
- 3) Daniel Zamarbide Iñarrea – 3 puntu.
- 4) Aritz Idiazabal Troyas – 2 puntu.
- 5) Aitor Martinez Ayesa – 2 puntu.
- 6) Alejandro Bernal Gomez – 2 puntu.
- 7) Jonathan Chamorro Garcia – 2 puntu.
- 8) Mikel Otsoa Aldaz – Puntu bat.
- 9) Marina Sevilla Subiza – Puntu bat.

FAVORITO GARBIAK EZ ZUEN IRABAZI.

Ustekabe handia gertatu zen Txapelketa honetan, Daniel Zamarbide faborito argia baitzen. Orvinako belaunaldi berriak ez dio inori beldurrik eta **Luis David Jimenez Almeidak** eta Pablo Urrizak lehenengo bi postuak lortu zituzten.

Luis David Jimenez Almeida da Infantil mailako gaurko Nafarroako txapelduna. Beraz, 18 urtez azpiko mailan ere nagusitzeak bere alde asko erraten du. laz laugarren geratu zen Txapelketa honetan.

Bide batez, Nafarroako Txapelketako Maila Nagusian jokatzeko eskubidea irabazi zuen **Luis David Jimenez Almeidak**, garaipen honi esker.

PALMARESA.

2007-08ko denboraldian: **Imanol Martinez Salas**, garaile.

2008-09ko denboraldian: **Daniel Zamarbide Iñarrea**, garaile.

2009-10eko denboraldian: **Luis David Jimenez Almeida**, garaile.

2010-04-04.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.